



DIRU-SARRERAK

HASIERAKO INBERTSIOA:

Gure proiektua aurrera eramateko beharrezko diru iturriak honako puntuetan laburbildu ditugu:

- **BAZKIDEEN EKARPENAK:** Hiru bazkide gara eta gutako bakoitzak 1.000€ ko **ekarpena** egingo dugu gure enpresan. Aurreztutako dirutik lortuko dugu diru kantitate hori. Diru horrez gain mailegu bat eskatuko dugu.
- **MAILEGUA:** Aipatu bezala, **mailegu** bat eskatuko dugu produktua merkaturatzeko beharrezko baliabideak izateko. 3000€ izango da maileguaren kapitalaren zenbatekoa, horrekin eta bazkideen ekarpenekin ekoizpenerako beharrekoak diren materialen erosketa eta teknikariaren hasierako soldatak ordaindu egingo dugu.
- **DIRU LAGUNTZAK:** Aliantza egingo dugu elkarte ekologista batekin, zehazki, Euskal Herriko talde boluntarioek osatutako talde ekologistarekin. Aliantzaren bidez laguntza lortuko dugu talde horretatik eta horren bidez erraztasuna izango dugu produktua aurrera eramaterako orduan.



EGUNEROKOTASUNEAN LORTUKO DUGUNAREKIN:

Alokairua, teknikariaren soldata eta materiala izango dira ordaindu beharko ditugun kostu finkoak.

- **SALMENTAK:** Salmentaren bidez eskuratuko dugun diru-sarrerak bitan banatuko dira:

Alde batetik, Samsung salmenta puntuetan lortutako diru sarrera guztien erdia eskuratuko dugu, beste erdia Samsung enpresak eramango baitu gure produktua bertan salduko dugulako.

Bestetik, web orrialdetik lortutako salmenten bitartez lortutako diru sarrerak daude.

Sarrera horiekin gure proiektuak eragiten dituen kostu guztiak ordainduko dira eta mozkinak hiru bazkideen artean banatzeko izango dira.